

LEGAZPI / Liburutegiak egitarau oparoa antolatu du herritarrei hurbiltzeko

Janari errezetak utzi ahal izango ditu norberak liburutegian; liburuxka osatu eta han bertan ikusgai ipiniko dute

Miriam Luki

Legazpiko Udal Liburutegian egitasmo ugari antolatu dituzte urriaren 24ko Liburutegien Egunaren harira. Eusko Jaurlaritzaren babesean eta Irakurri Kanpainare barruan, egitasmo horren helburu nagusia liburutegiko zerbitzuak herritarrei hurbilaraztea da.

Liburutegiko erabiltzaile helduei janari errezeta bat idatzi eta han uzteko eskatuko diete. Biltzen dituzten errezeta guztiekin liburuxka osatuko dute, eta bertan ikusgai ipini. Jarduera horrekin liburutegira jende gehiago joatea espero dute. Gainera, errezeta uzten duten denei opari bana egingo diote. Egitasmoaren osagarri gisa, Liburutegiko menua jarduera ere martxan jarriko dute: urriaren 17an ordubeteko iraupena izango duen saioan errezeta liburua irudikatuko dute.

Bestetik, liburutegiko erabiltzaile guztientzat zuzendutako ekintza gisa, irakurle batek lagun edo senitarteko bat liburutegira gonbidatuz gero oparia jasoko du.

Familiak ere kontatzen du. Etxean irakurtzeko gogoia pizteko 12 urrats gidaren bitartez familietan irakurzaletasuna piztu nahi du kanpainaren atal horrek. 3 urtetik 6ra bitarteko haurrengan irakurtzeko ohitura sortzea helburu hartuta, eginkizun horretan gurasoek, ikastetxeak eta liburutegiak duten arduraz ohartarazten du gidak. Gida gaurtik aurrera jaso daiteke liburutegian; horren bila liburutegira hurbiltzen direnek ere opari bat jasoko dute ordainetan.

Gazteentzako lehiaketa

Kanpainan gazteak ere kontuan hartu dituzte, eta haiek erakartzeko argazki digitalen lehiaketa antolatu dute. Helburua 12-16 urte bitarteko gazteak irakurketaren ingurura hurbiltzea da. Horretarako, gaia liburua azaltzen den erretratua izanik, liburuak irakurtzen autoerretratuak eta erretratuak egin beharko dituzte. Parte-hartzaile guztiek oparia jasoko dute, eta irudirik onenek aparteko saria jasoko dute. Lanak azaroaren 1etik aurrera utzi beharko dira liburutegian.